

ARTEA ETA OSPITALEAK 2025

GINARRI ARAUTZAILKAK

Deialdiaren xedea:

Nafarroako Gazteriaren Institutuak (NGI), Osasun Departamentuarekin lankidetzan, lehiaketa bat iragarri du **esku-hartze artistiko iraunkor eta eramangarri bat garatzeko Osasun Mentaleko Kudeatzailetzan, Elikadura-nahasmenduetarako Programaren instalazioetan.**

Programa hori Nafarroako Osasun Mentaleko Sarearen parte da, eta anorexia eta bulimia nerbio-soaren diagnostikoa duten pazienteak artatzen ditu. Tratamendua bi formatutan eskaintzen da, paziente bakoitzaren egoera klinikoaren arabera: 10 lagunentzako eguneko ospitale batean, edo kontsulta anbulatorioen programa baten bidez. 8 profesionalak lan egiten dute, eta goizez ematen da arreta. Emakume gazteak artatzen dira batez ere, baina pazienteen adina 17 urtetik 65 urtera bitartekoa da. Eguneko ospitalean ikuspegi psikologiko integral, diziplina anitzeko eta pertsonalizatutik lan egiten da, non erabiltzaileen tratamenduaren parte handi bat "jantoki terapeutikoan" egiten baita; bertan gauzatuko da "Artea eta Ospitaleak" proiektua.

Elikadura-nahasmenduetarako Programaren instalazioak Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko pabiloi zurian daude. Obra **jantoki terapeutikoaren espazioan gauzatuko da. Barruko espazioa da, 25,30 m²-koa (6,35 m-ko luzera, 4,03 m-ko zabalera), eta haren altuera 3,10 eta 3,69 m artean dago (ikus I. eranskina).**

Instalazioak edo proposamenak ezin du espazioaren erabilera zaildu. Proiektu hori ospitalearen baldintzetara eta testuingurura egokituko da, eta horretarako behar diren estrategiak erabiliko dira.

Ekintza honen bidez, espazio askatzaile, gizatiar eta atsegina sortu nahi da, espazio hori erabiltzen duten pertsona guztientzat: profesionalak, pazienteak, ahaideak, lagunak.

Horrela, artearen bidez prozesu emozional pertsonalekin konektatzeko espazio bat prestatuko da, eta artista gazteek espazio publikoetan parte har dezaten sustatuko.

1.-Norentzat den

Artista nafarrak edo Nafarroan gutxienez 6 hilabeteko antzintasunarekin erroldatuta daudenak, eta oinarri hauek argitaratzen diren unean **18 urtetik 30era** arteko adina dutenak. **Bakarka nahiz taldeka aurkez daitezke deialdira.**

2.–Eskabideak aurkezteko epea eta tokia

Interesdunek bide hauetako bat erabili behar dute proposamenak aurkezteko: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/arte-gaztea-eta-ospitaleak-programa> webgunean irekitako fitxa, [Erregistro Orokor Elektronikoa](#), Nafarroako Gazteriaren Institutuko Erregistroa – eskabidea betez– (Yanguas y Miranda 27, behea, 31003 Iruña), Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro-bulego edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua ezarritako lekuak.

Dokumentazio osagarria eskatzen ahalko da.

Proiektuak 2025eko maiatzaren 13tik ekainaren 13ra bitartean (biak barne) aurkezten ahalko dira. 2025eko ekainaren 20a baino lehen hautatuko da proiektua.

Proiektuaren tutoretza eta planteamendua 2025eko uztailean eta abuztuan egingen dira. 2025eko irailean gauzatuko da. Lana amaitu ondoren, aurkezpen publikoa egingen da 2025eko azken hiruhilekoan, lana egin duen kolektibo edo artistak eta Elikadura-nahasmenduetarako Programak adostuko duten moduan eta egunean.

3.–Proiektuak aurkeztea

Proiektuak aurkezteko, dokumentazio hau bidali beharko da Nafarroako Gazteriaren Institutura:

- Izena emateko inprimakia eta erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskinaren arabera)
- NANaren edo AIZaren fotokopia
- Curriculum artistikoa, proiektua aurkezten dutenen ibilbidea jasoko duena.
- Esku-hartzeko proposamena jasotzen duen txostena (pdf formatuan, "IZENA_ABIZENA_SALUD.PDF" izena duen agiri bakar batean). Txostenak 15 orri izanen ditu, gehienez.

Nafarroan bizi den baina Foru Komunitatean jaioa ez den artista baten obra hautatuz gero, hark errolda-agiria aurkeztu beharko du, frogatzeko Nafarroan gutxienez 6 hilabeteko antzinasunarekin erroldatuta daudela.

Esku-hartzeko proposamenak honako hauek jasoko ditu:

- Hasierako asmoa, landu nahi diren kontzeptuak azalduta.
- Testuinguruarekin lotzeko aurreikusten diren estrategiak.
- Erabili beharreko material eta tekniken aurrerakin bat, baita irudiak, zirriborroak eta proiektua hobeki ulertzeko lagungarri izan daitezkeen bestelako alderdiak ere.
- **Proiektuaren aurrekontu zehatza, gehienez ere 4.500 eurokoa, BEZa barne.** Aurrekontuan sartuko dira lan artistiko osoaren ekoizpena, joan-etorriak eta ordainsariak.

4.–Epaimahaia eta hautaketa

Pertsona hauek izanen dira epaimahaikideak:

- Txema Burgaleta Encina, Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea. Mahaiburu arituko da.
- Oskia Ugarte Abarzuza, Uharteko Arte Garaikideko Zentroko zuzendaria.
- Cesar Cuevas Lara, Osasunbideko Osasun Mentaleko Kudeatzailetzako terapeuta okupazionala.
- Asier Pascual Ruiz, Osasunbideko Herritarren eta Erien Arretarako Zerbitzuko burua.
- Mónica Domínguez Catena, Nafarroako Gazteriaren Institutuko Parte-hartzearen eta Sormenaren Bulegoko burua. Idazkari arituko da, hitza bai baina botorik ez duela.

Epaimahaiaren eraketa baliozkoa izateko, beharrezkoa izanen da elkartzea mahaiburua eta idazkaria, edo haien ordezkioak, eta gutxienez ere epaimahaikideen erdiak.

5.–Epaimahaiaren eginkizunak eta proiektuaren hautapena

Epaimahaiak proiektuen kalitate artistikoa, haien ikerketa- eta esperimentazio-proposamenak eta deialdiaren xedearekin duten lotura baloratuko ditu.

Bereziki baloratuko dira prozesuan esku-hartzearen xede den espazioa erabili ohi duten pertsonak nolabait barne hartzen dituzten proiektuak.

Halaber, oinarri hauetan ezarritakoa betetzen ez duten lanak baztertzen ahalko ditu, arrazoiak emanez.

Epaimahaiak aurkezturiko proiektuak ebaluatuko ditu, eta gehiengoz hartuko ditu erabakiak. Berdinketa gertatuz gero, epaimahaiburuak kalitatezko botoa erabiltzen ahalko du. Lehiaketa ebazteko, erabilitako arrazoiak zehaztuko dira erabakian. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.

Epaimahaiak lehiaketa ebatzi gabe uzten ahalko du, uste badu aurkezturiko proiektu bakar batek ere ez dituela ezarritako xedeak betetzen.

6.–Hautatutako proiektua eta haren garapena:

Hautatzen diren artistek 7 eguneko epea izanen dute, jakinarazpena eta biharamunetik aitzina, mandatua eta baldintzak onartzeko.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak eta Osasun Departamentuak jarraipena egingen diote proiektu irabazlearen garapenari, oinarrietan eta proposamenean ezarritakoari egokitu dakion.

Uharteko Arte Garaikideko Zentroko taldeak tutoretza egingen dio hautatutako proiektuaren garapenari. Hautatuko proiektuari lotutako pertsonak eskura izanen dute zentroko espazioa, ekipamenduak eta langileen laguntza 2025eko uztailan eta abuztuan, Programan lanean hasi aurretik.

Proiektua amaitu ondoren, aurkezpen publikoa egingen da 2025eko hirugarren hiruhilekoan, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko pabiloi zurian, hor baitago Osasun Mentaleko Kudeatzailetzaren Elikadura-nahasmenduetarako Programa.

7.–Obraren jabetza

Nafarroako Gobernuak bilakatuko da hautatzen den proiektuaren jabe, maketak eta dokumentazioa barne, eta, hartara, obra erreproduzitzen ahalko du bidezko iruditzen zaizkion baliabideak erabiliz, haren zabalkuntza egiteko lehiaketaren hedapenak berezko dituen ondorioetarako.

Egileak Nafarroako Gobernuaren aitzinean erantzun beharko du proiektuaren egilezari eta originaltasunari dagokienez. Administrazio kontratatzaileak segurutzat jotzen du parte-hartzaileak egileza- eta irudi-eskubideak dituela. Nafarroako Gobernuak salbuetsita geratzen da egileak obligazio horiek ez betetzeagatik hirugarrenen ekintza, erreklamazio edo gatazken ondorioz erator daitekeen edozein erantzukizunetik.

Proiektua gauzatu ondoren, Nafarroako Gobernuaren ondare bilakatuko da, haren egileen jabetza intelektual eta artistikoetarako eskubideei kalterik egin gabe.

Osasun Departamentuak artelana kentzen edo birkokatzen ahalko du, tenorea etorrira.

Egileak izanen dira hautatzen ez diren proposamenen jabe.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak behar bezala jakinaraziko die hautatuak izan ez diren proposamenetako parte-hartzaileei ez dutela lehiaketa irabazi.

8.–Datuen babesaren gaineko oinarrizko informazioa.

Arduraduna: Nafarroako Gazteriaren Institutua.

Xedea: Lehiaketan parte hartzeari lotutakoa kudeatzea, eta parte hartzen duten pertsona eta erakunde guztiekiko komunikazioak eta informazio-trukeak ahalbidetzea.

Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da bai kontratu bat betetzeko, bai legezko obligazio bat betetzeko: 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoari buruzkoa.

Hartzaileak: Ez zaizkie datuak hirugarrenei lagako, ez bada horretarako baimena eman dutela edo, baimenik eman gabe, araudiak hartarako gaitzen duela.

Eskubideak: Datuetara sartzea, datuok zuzentzea eta ezabatzea eta haien tratamendua mugatzea.

Eskubide horiek erabiltzeko: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/datu-pertsonalak-babesteko-eskubideak-baliatzea?back=true&pageBackId=7567267>

Argibide gehiago

Argibide gehiago daude webgune honetan:

https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/datuak_babespena_informazio-klausulak_nji.pdf

Informazioa eta oinarriak

<https://www.juventudnavarra.es/eu/artea-eta-ospitaleak>

NGI, Yanguas y Miranda 27, behea Tel.: 848-427841.

Intereseko helbide elektronikoa: encuentros@navarra.es

I. ERANSKINA



